

**2/2017 JARRAIBIDEAK****NORK: GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIAK****NORI: ZERBITZU-ERAKUNDEETAKO PERTSONALEKO ZUZENDARIEI****GAIA: 2016-2017 IKASTURTEKO UDAKO EUSKARA IKASTAROETARAKO DEIALDIA**

Jarraibide hauen bidez 2016-2017 ikasturteari dagokion 2017ko udan euskara ikasteko eskabideak tramitatze eta langileak aukeratzeko prozedura ezartzen da.

## **JARRAIBIDEAK**

### **1.- UDAKO EUSKARA IKASTAROEN HELBURUA.**

Ikastaro hauek 2017ko udan euskara ikasi nahi duten Osakidetzako langileei eskaintzen zaie.

Udako ikastaroetarako eskaera egiteko ez da beharrezkoa izango 2016-2017 ikasturtean matrikulatuta egon izana.

### **2.- NORK ESKA DEZAKE UDAKO IKASTAROA?**

Deialdian parte har dezakete Osakidetzako langileek, lan-harremana edozein izanda ere, betiere baldintza hauek betetzen badituzte:

- Zerbitzu aktiboan, senideak zaintzeko eszedentzian edo zerbitzu berezietan egotea 2016ko martxoaren 9tik 2017ko maiatzaren 9ra bitartean ( 2016-2017 ikasturteko deialdia arautu zuen 276/2016 Ebazpenaren egunetik 2017ko udako ikastaroetan parte hartzeko izen-emate eguna bukatu arte).

- Aldi baterako kontratatuen kasuan, epe horretan guztira sei hilabetetik gora lan egin behar izan dute Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuan.

Espezialitatea egiten ari diren mediku eta erizain egoiliarrek euskalduntze ikastaroak egin ahal izango dituzte, euren prestakuntza aldiaren urtea gorabehera.

### **3.- IKASTAROEN EZAUGARRIAK**

Ikastaro guztiak lanorduetatik kanpokoak izango dira; beraz, langileak oporraldietan joango dira eskoletara.

Administrazioak ikastaroen matrikula ordainduko du. Barnetegia aukeratuz gero, eskolak, ostatua eta mantenua ere ordainduko ditu; alabaina, ez du bestelako gasturik ordainduko, hala nola, joan-etorriak eta materialak.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**OSASUN SAILA  
DEPARTAMENTO DE SALUD

Udako ikastaroen deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVApek finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez. Aurrekontua nahikoa ez balitz, indarrean dagoen araudian aurreikusitako lehentasun irizpideak jarraituko ditu IVApek, hau da, 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako irizpideak jarraituko ditu.

Ordu-kreditua agortuta izateagatik IVApek finantzatuko ez duen langileen hizkuntza-prestakuntza Osakidetzak finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere Osakidetza Giza Baliabideetako zuzendariaren 1/2015 Jarraibideek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

### **3.1.- Udako ikastaroek bete beharreko baldintzak.**

- a) Ikastaroak HABEk homologatuak izan behar dira.
- b) Euskaltegi publikoek edo pribatu homologatuek eman behar dituzte.
- c) Gutxienez 80 ordukoak izan behar dute.
- b) **EZ** da onartuko autoikaskuntza bidezko ikastarorik.

Ikastaroa irailean egin nahi izanez gero, kontuan izan beharko da 2016-2017 ikasturteko ikastaroak noiz hasiko diren, iraileko ikastaroaren amaiera eta ikasturte berriaren hasiera nahas ez daitezen.

### **4.- ESKABIDEEN EPEAK, TRAMITAZIOA ETA JAKINARAZPENA.**

Langile bakoitzak, gehienez ere, hiru ikastaro egin ahal izango ditu eta ikastaro bakoitzeko eskaera bat egin beharko du.

#### **4.1. Eskaerak egiteko epea eta prozedura.**

Udako ikastaroetarako eskabidea egiteko epea: 2017ko apirilaren 24tik maiatzaren 9ra bitartekoa, biak barne. Data horretatik aurrera zerbitzu-erakundeek ez dute eskabiderik onartuko.

Zerbitzu-erakundetako pertsonaleko zuzendaritzek eskabideak Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzari helarazteko azken eguna: 2017ko maiatzaren 16a. Epe hori igarota, ez da eskabiderik ez aldaketarik onartuko.

Giza Baliabideen Zuzendaritzak IVAPi baimendutako eskabideen berri emateko azken eguna: 2017ko maiatzaren 24a.

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek eskabide elektronikoa bete beharko dute:

- [www.osakidetza.eus](http://www.osakidetza.eus) (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > Udako ikastaroak > Eskaerak > Internetez)
- [www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus) (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > 2017ko uda > Eskaerak > Internetez).

Era berean, izena emateko eskabidea aurkeztu ahal izango da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan jasotakoan, bat etorrita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen

urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenaren bigarren paragrafoan adierazten denarekin. Horretarako, jarraibide hauen I. Eranskineko eskabide orria erabil daiteke.

#### 4.2. Eskaerak tramitatze eta jakinarazteko modua.

Zerbitzu-erakundeek paperean aurkeztutako eskabideak GIZABIDE-EUSKARA, prestakuntza moduluan, grabatu eta tratatu beharko dituzte. Internetez egindako eskabideei dagokienez, tratatu baino ez dira egin behar. Onartutako eta ukatutako eskabideen zerrenda Giza Baliabideen Zuzendaritzara bidaliko da, paperean aurkeztutako eskabideekin batera.

Baimendutako eskaerak IVAPera bidaltzeko epea igaro ondoren, Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariak, ebazpen baten bidez, baimendu eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda onartuko du. Baztertuen kasuan, baztertzearen arrazoia adieraziko da. Aipatutako ebazpena Osakidetza web gunean jarriko da jende aurrera baita zerbitzu-erakundeetan zabalkunde handiena duen hedabideetan ere (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula ...).

Behin-behineko zerrenda Osakidetza web gunean jende aurrean jarri eta hurrengo egunetik hasita, interesatuek 10 egun naturaleko epea izango dute erreklamazioak Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariari aurkezteko.

Erreklamazioak Osakidetza edozein zerbitzu-erakundetako erregistroan aurkeztu ahal izango dira eta, halaber, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan jasotako edozein eratan, bat etorrita Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen azken xedapenetako zazpigarrenaren bigarren paragrafoan adierazten denarekin.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro ondoren, Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren ebazpen bidez ebatziko dira. Ebazpen honek baimendutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda jasoko du; baztertuen kasuan, baztertzearen arrazoia adieraziko da. Aipatutako ebazpena Osakidetza web orrian jarriko da jende aurrera baita zerbitzu-erakundeetan zabalkunde handiena duen hedabideetan ere (posta elektronikoa, intranet, iragarki-taula, ...).

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Osakidetza web orrian jendaurrean jartzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

### 5.- UDAKO IKASTAROEN ANTOLAMENDUA

Baldintzak betetzen ez dituzten eskaerak ukatu egingo ditu IVAPek, eta Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzari ukapenaren berri emango dio, honek zerbitzu-erakundetako zuzendaritzari jakinarazteko.

Baldintzak betetzen dituzten eskaeren kasuan, aldiz, IVAPek langileentzako matrikula orriak bidaliko ditu Osakidetza Giza Baliabideen Zuzendaritzara. Eta honek, zerbitzu-erakundeen pertsonaleko zuzendaritzetara bidaliko ditu, langileek beraiek aukeratutako euskaltegi homologatura eramane eta era honetan matrikula egin dezaten.

Langileek konpromisoa hartzen dute dagokion matrikula orria jasotzeko eta erabiltzen ez badute itzultzeko. Matrikula orria ez itzultzea edo ez jasotzea nahikoa izango da hurrengo deialdian langilearen eskabidea ezesteko.

Langileak ikastaroa ez egitea erabakitzen badu, bere zerbitzu-erakundeko Pertsonaleko Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio ahalik eta lasterren, betiere 2017ko irailaren 29a baino lehen. Horretarako, "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" izeneko agiria behar bezala bete eta Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko du.

Era berean, ikastaroa hasi eta langileak ikastaroa uzten badu, eskola uztea jakinarazi beharko du ahalik eta arinen. Horretarako, "Eskola-uztea jakinarazteko inprimakia" izeneko agiria behar bezala bete eta Pertsonaleko Zuzendaritzan aurkeztu beharko du.

Inprimakiak zerbitzu-erakundeetako pertsonaleko zuzendaritzetan egongo dira eskura, bai eta honako helbide elektroniko hauetan ere:

- [www.osakidetza.eus](http://www.osakidetza.eus) (Profesionalak > Euskara > Euskarazko prestakuntza > Euskalduntze ikastaroak > Udako ikastaroak > "Ikastaroari uko egiteko inprimakia" / "Eskola uztea jakinarazteko inprimakia")

- [www.osakidetza.euskadi.eus](http://www.osakidetza.euskadi.eus) (Profesionalak > Euskara > Euskara ikastaroak > 2017ko uda > Ikastaroari uko egiteko inprimakia" / "Eskola uztea jakinarazteko inprimakia")

2016-2017 ikasturteko udako ikastaroak arautu zituen 3/2016 Jarraibideek ezartzen zutena betetzeko, baztertuak izango dira 2016ko udako deialdian matrikula orria jaso ez edo itzuli ez zuten eskatzaileen eskaerak.

Normalean, euskaltegi bakoitzak bere eskaintza berezitua egiten du: egutegiak, iraupenak, ikasgelak, e.a. desberdinak izaten dira euskaltegi batetik bestera. Ikastaro batzuk euskaltegietan bertan ematen dira, eta beste batzuk, aldiz, bestelako etxe edo herrietan.

Datorren 2017-2018 ikasturtean administrazio ikastaldeak osatzeari begira, oro har ez da kontuan hartuko udako ikastaroan langileak egin duen urratsa, baizik eta 2016-2017 ikasturte honetan gainditu duen azken urratsa.

## **6.- MATRIKULAREN ORDAINKETA.**

Udako ikastaro hauek IVApek finantzatuko ditu horretarako duen aurrekontuaren bidez. Aurrekontua nahikoa ez balitz, indarrean dagoen araudian aurreikusitako lehentasun irizpideak jarraituko ditu IVApek, hau da, 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako irizpideak jarraituko ditu.

IVApek ikastaroen matrikula ordainduko du. Barnetegia aukeratuz gero, eskolak, ostatua eta mantenua ere ordainduko ditu; alabaina, ez du bestelako gasturik ordainduko, hala nola, joan-etorriak eta materialak.

Ordu-kreditua agortuta izateagatik IVApek ordainduko ez dituen eskaerak Osakidetza finantzatuko ditu horretarako duen aurrekontuaren bidez, betiere Osakidetza Giza Baliabideen zuzendariaren 1/2015 Jarraibideek ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

## **7.- ORDU-KREDITUA UDAKO IKASTAROETAN.**

Ordu-kredituari dagokionez, IVAPekiko Lankidetzak Hitzarmena arautzen duen 2005eko azaroaren 30eko Aginduari jarraituko zaio.

Agindu horren 6. artikularen arabera, euskara ikastaroa hasi ahal izateko, beharrezkoa izango da ikasleek ikasturtearen hasieran ordu-kredituan aldeko saldoa izatea.

Gauzak horrela, IVAPek ordu-kredituaren kontrola modu honetan aplikatuko du udako ikastaroetan:

- 2016-2017 ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek ikasturtea hasi aurretik aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea urrian hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan.

- 2016-2017 ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleek otsaileko ikastaroa hasi baino lehen aplikatu zitzaizen ordu-kredituaren kontrola; beraz, udako deialdian ez zaie berriro aplikatuko. Ondorioz, ikasturtea otsailean hasi zuten ikasleek udako deialdian parte hartu ahal izango dute nahiz eta udako eskaera egiten dutenean ordu-kreditua negatiboa izan.

- Azkenik, 2016-2017 ikasturtea 2017ko udan hasiko duten ikasleek eskaera egin orduko aplikatuko zaie ordu-kredituaren kontrola, eta saldo negatiboa dutenak ezin izango dira eskolan hasi. Hau da, ikasle horiek udako ikastaroa egin ahal izateko, aldeko saldoa izan beharko dute; bestela, IVAPek bazter utziko du eskaera.

Edozelan ere, udako ikastaroetan emandako orduak ordu-kreditutik kenduko dira, ikasturtean zehar emandako gainerakoak bezalaxe. Langileak kontuan hartu beharko du hori 2017-2018 ikasturterako eskola-eskaerarik egiteko asmorik badu, ikasturtean hasi ahal izateko bere ordu-kreditua positiboa izan behar baita.

## **8.- IKASLEEI BURUZKO DATU PERTSONALAK.**

Euskara ikastaroak kudeatu ahal izateko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta datu pertsonal horiek bidezko denean dagokion enteei lagatzea. Hori dela eta, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo euskara ikasten ari diren langileen eskabideei, asistentziari eta ebaluazioari buruzko datuak jaso, kudeatu eta fitxategian bilduko ditu eta Osakidetzaren esku utziko ditu.

Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen kudeaketa arau hauek xedatutakoaren arabera egingo dira: Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, bai eta datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak ere (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa).

Deialdi honetara biltzen diren pertsonak onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Beraz, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea, tratatzea eta Osakidetzari jakinaraztea euren asistentziari eta ebaluazioari dagokionez. Hori guztia ebaluazio-txostena egiteko; txosten horrek bere baitan hartuko ditu gutxieneko helburuen eta lehentasunen betetze maila, hizkuntzaren aldetik gaitzeko prozesuak, eta hizkuntz eskakizunen egiaztatze gradua (67/2003 DEKRETUA, martxoaren 18koa, euskararen erabilera Osakidetza Euskal

osasun zerbitzuan normalizatzeko, 1.3. artikulua). Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko txostenak egin ditzan, (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua). Era berean, onartu egiten dute datuok Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari-HABEri lagatzea (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera). Eta azkenik, interesatuak baimena ematen dio Osakidetza izandako asistentzia eta euskara-mailari buruzko datuak HABEri eskatzeko.

Era berean, Osakidetza zerbitzu-erakundeen eskura jarriko ditu dagokion zerbitzu-erakundeko langileek egingo dituzten ikastaroei buruzko asistentziari, ebaluazioari eta aprobetxamenduaren gaineko txostenak.

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Espainiako Agentzia izenekoan erregistratutako IVAPen "Funtzionarioak euskalduntzea" eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuen "Registro del personal de Osakidetza-SVS" izeneko fitxategietan egongo dira. Ikasleek Fitxategietako datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero. Horretarako, "Funtzionarioak euskalduntzea" izeneko fitxategiaren kasuan, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia/San Sebastian kalea, 1; 01010 Vitoria-Gasteiz. "Registro del personal de Osakidetza-SVS" izeneko fitxategiaren kasuan Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen Zuzendaritzara jo dezakete: Araba kalea 45, 01006, Vitoria/Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko apirilaren 20a

 **Osakidetza**  
Jose María Armentia Macazaga  
GIZA BALIABIDEETAKO ZUZENDARIA  
DIRECTOR DE RECURSOS HUMANOS  
Iz.: Jose María Armentia Macazaga  
GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIA

**ESKATZAILEA**
**OHARRA**

Datu guztiak egoki bete behar dira eskaera ontzat emateko.  
Izen-abizenak nortasun agrian dauden bezala idatzi.

**SOLICITANTE**
**ATENCIÓN**

Para que se acepte la solicitud deben cumplimentarse todos los datos.  
Escribir nombre y apellidos tal como aparecen en el DNI.

**NAN**
**DNI**
**Perts. Zk.**
**Nº personal**
**Abizenak**
**Apellidos**
**Izena**
**Nombre**
**Zerbitzu-erakundea**
**Organización de servicios**
**Lan-harremana**
**Relación laboral**
☐ **Behin betikoa**
**Fijo**
☐ **Bitartekoa**
**Interino**
☐ **Aldi-baterakoa**
**Temporal**
**ESKATUTAKO IKASTAROA**

(gehienez ere 3 ikastaro eskatu ahal dituzu)

**CURSO SOLICITADO**

(puede solicitar como máximo 3 cursos)

**LEHEN IKASTAROA / PRIMER CURSO**

|                             |  |                                               |  |
|-----------------------------|--|-----------------------------------------------|--|
| <b>EUSKALTEGIA</b>          |  | <b>ZENBAT ORDU EGUNEAN</b><br>Nº HORAS AL DÍA |  |
| <b>HERRIA</b><br>POBLACIÓN  |  | <b>HASIERA-EGUNA</b><br>DÍA DE INICIO         |  |
| <b>ORDUTEGIA</b><br>HORARIO |  | <b>AMAIERA EGUNA</b><br>DÍA DE FINALIZACIÓN   |  |

**IKASTAROAAREN IRAUPENA:** ikastaroaren iraupenari gehien hurbiltzen zaion ordu kopurua adierazi ☐ 80-90 ordu ☐ 115 ordu ☐ 130 ordu

**DURACION DEL CURSO:** elija el nº de horas que más se aproxime al curso que se desea realizar

**BIGARREN IKASTAROA / SEGUNDO CURSO**

|                             |  |                                               |  |
|-----------------------------|--|-----------------------------------------------|--|
| <b>EUSKALTEGIA</b>          |  | <b>ZENBAT ORDU EGUNEAN</b><br>Nº HORAS AL DÍA |  |
| <b>HERRIA</b><br>POBLACIÓN  |  | <b>HASIERA-EGUNA</b><br>DÍA DE INICIO         |  |
| <b>ORDUTEGIA</b><br>HORARIO |  | <b>AMAIERA EGUNA</b><br>DÍA DE FINALIZACIÓN   |  |

**IKASTAROAAREN IRAUPENA:** ikastaroaren iraupenari gehien hurbiltzen zaion ordu kopurua adierazi ☐ 80-90 ordu ☐ 115 ordu ☐ 130 ordu

**DURACION DEL CURSO:** elija el nº de horas que más se aproxime al curso que se desea realizar

**HIRUGARREN IKASTAROA / TERCER CURSO**

|                             |  |                                               |  |
|-----------------------------|--|-----------------------------------------------|--|
| <b>EUSKALTEGIA</b>          |  | <b>ZENBAT ORDU EGUNEAN</b><br>Nº HORAS AL DÍA |  |
| <b>HERRIA</b><br>POBLACIÓN  |  | <b>HASIERA-EGUNA</b><br>DÍA DE INICIO         |  |
| <b>ORDUTEGIA</b><br>HORARIO |  | <b>AMAIERA EGUNA</b><br>DÍA DE FINALIZACIÓN   |  |

**IKASTAROAAREN IRAUPENA:** ikastaroaren iraupenari gehien hurbiltzen zaion ordu kopurua adierazi ☐ 80-90 ordu ☐ 115 ordu ☐ 130 ordu

**DURACION DEL CURSO:** elija el nº de horas que más se aproxime al curso que se desea realizar

Sinatzalleak balmena ematen du Inprimaki honetan jasotako datu pertsonalak euskara ikastaroetarako eskabideen kudeaketan erabiltzeko eta bere datuak lagatzeko, 2/2017 Jarraibideen 8. oinarrian ezarritakoari jarraiki. Fitxategiko datuetara sartzeko, datuok aldatu eta deuseztatzeko edo beste inorri ematen ez uzteko eskubidea erabili nahi izanez gero, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Giza Ballabideetako Zuzendaritzara (Araba kalea 45, 01006, Vitoria/Gasteiz) eta IVAPeko Idazkaritza Nagusira (Donostia/San Sebastián 1, 01010, Vitoria/Gasteiz) jo dezakezue.

La persona firmante autoriza el tratamiento de los datos personales recogidos en este formulario para la gestión de los cursos de euskera y la cesión de sus datos, tal como se establece en la base 8ª de la Instrucción 2/2017. Para ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición pueden dirigirse a la Dirección de Recursos Humanos de Osakidetza-Servicio vasco de salud (Araba kalea 45, 01006, Vitoria/Gasteiz) y a la Secretaría General del IVAP (calle Donostia-San Sebastián 1, 01010 Vitoria/Gasteiz).

**ESKATZAILEAREN SINADURA**
**FIRMA DE QUIEN SOLICITA**
**ZERBITZU-ERAKUNDEAREN O.E. eta ZIGILUA**
**Vº Bº y DE SELLO DE LA ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS**
**DATA / FECHA**
**DATA / FECHA**